

## ABONATUAK ETA BERTARATZEA

Zazpi urte dira Realak Bigarren Maila 21.000 abonatu baina gehixeagorekin utzi zuenetik, eta berreskuratutako gorengo maila 25.000 baina gehiagorekin hasi zuenetik. Orduetik eta 2014-15 denboraldira arte, urtearen arabera datu hori mila abonatan igo ala jaitsi da urtez urte. Datu horiek, gainera, bat egiten dute Anoetan izandako batz bestekoarekin fondoetako arteko solairuak eraiki zirenetik.


2015-16an, ordea, abonatu kopuruaren jaitsiera bereziki nabarmena izan zen, 23.200 arte. Inoiz Anoetan Lehen Mailan izandako zifrarik baxuena, Bigarren Mailara jaitsiera aurreko azken bi denboraldiak salbu. Zergatiak aztertzea ez da lan erraza; zalegoaren zati baten ilusio falta taldearen kirol errendimenduarekiko arrazoi nagusien artean egon daiteke. Beste arrazoietakoa bat norgehiagoken ordutegia izan liteke, baina hauek ez ziren bereziki desagokiak izan aurreko denboraldiekin alderatuz gero. Ordutegiak ordutegi eta datu orokorrak aztertuta, Ligako bertaratzeek goruntz egin dute.

Bertaratzearen gai honi buruz, eta azken urteetako abonatuaren igoera eta jaitsiera arruntez gain, Anoetara hurbildutako zaletu kopuruak jaitsiera jasan du modu erregularrean baten urtea joan eta urtea etorri. 2010-11 denboraldiko %78ko batz besteko betetzetik aurreko denboraldiko %64ra arte. Realak laugarren postua erdietsi zuen denboraldian ere, aurreko urteko batzbesteko bertaratzea baina okerragoa izan zen.

Azken hilabeteetan, klubak egitasmo ezberdinak eraman ditu aurrera bai bertaratze datuak baita partida aurretik, partiduetan eta ondoren zalegoaren esperientzia hobetzeko asmoz. Besteak beste, Espanyolen kontrako partidaren aurreko aisia jarduerak, zelaian jokaldien errepikapenak ikusteko tablet aparailuen salmenta, eta helduek gaztetxoek karneta erabili ahal izatea ordutegi desagokiko jardunaldietan.

Guztiak, ahal den heinean eta Bundesliga edo Premier Leagueari jarraiki, ahal den heinean Anoetara bertaratzea Realaren kirol egoerara edo kontrako taldearen

# Abonatuak 2010etik



erakargarritasunera hain estuki lotua egon ez dadin. Hori da jarraitu beharreko bidea, oraindik ere gehiago aurreikusia dagoen Anoetaren edukieran zabaltzen nabaria kontuan izanda.

Azken urteetako joera edozein zale eta agintari arduratzeko modukoa da, are eta gehiago pasa den urteko bertaratzean eta abonatuaren kopuruan izandako beherakada ikusita. Egoera honek hausnarketa zehatz baten beharra azalera du, zergatiak eta konponbideak aurkitzeko. Edonola ere, datuek ez lukete ezkutatu behar Realak lau hoberenen artean dagoela bere lurraldearekiko abonatu eta bertaratutako pertsonen begiratu gero.

Edonola ere, datuek ez lukete ezkutatu behar Realak proportzioan Champions League postuetan egongo litzatekeela probintziarekiko abonatu eta bertaratutako pertsonen so eginez.